



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Landa Ingurune eta  
Lurralde Orekako Departamentua

## ZIBER IKERKETA ETA GARAPENA

ESKAERAREN TXOSTENA OSATZEKO GIDA



#### **OHARRAK:**

Jarraian eskabidearen balorazio egokia egin ahal izateko eskabidearen txostenak jorratu beharko liratekeen arloak azaltzen dira.

Aplikatioan eskaera txostenaren formularioa betetzea derrigorrezkoa da. Horretaz gain, dokumentu osagarriak erantsi daitezke aplikatibora.

## Helburua

### HAUTAGARRITASUNA

- Proiektuaren kokapena “Gipuzkoako enpresa industrialetan zibersegurtasuna sustatzeko programa” arautzen duen 2018ko uztailean 17an Diputatuen Kontseiluak onartutako erabakiaren III. Eranskineko 3. oinarrian aurreikusitako jarduera hautagarrien barruan

### ZERTARAKO

- Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa
- Aldatu/hobetu nahi den egoeraren deskribapena/diagnostikoa
- Helburua
- Izango duen eragina hartzaileetan (enpresak eta/edo sektoreak)
- Orain artean garatutako jarduerekin alderatuz proiektuak duen balio erantsia
- Lortu nahi diren emaitzak/hobekuntzak
- Zer eragin izango dute garatuko diren jarduketek Gipuzkoako enpresetan zibersegurtasuna sustatzeko Gipuzkoako estrategia eta programetan
- Aplikazio eremua



## Garatuko den proiektua

### **ZER - NOLA**

- Garatuko den proiektuaren eta ekintzen deskribapena
- Proiektuaren dimentsioa eta hedadura
- Erabiliko den metodologia
- Aurreikusitako egutegia
- Entregagaiak

### **NORK**

- Proiektuan parte hartuko duten entitateen deskribapena
- Departamentuarekin harremanak izateko taldea izendatzea
- Aurreikusitako lan taldea: pertsonak (gaitasunen profila barne) eta bitarteko materialak.



***Garatuko den proiektua txertatu/barneratuta/landu eduki beharko lituzke, besteak beste:***

- Proiektuaren txertaketa enpresak eta/edo entitateak zibersegurtasuna sustatzeko dituen estrategia eta helburuekin
- Izaera eraldatzailea: esperimentazioa jomuga izatea, proiektuaren elementu eraldatzaileak, eraldaketa maila.
- Enpresa eta/edo sektore mailan zer hobekuntza eta/edo aldaketa eragingo dituen
- Ikasitakoa eta praktika onak indarrean jartzea, aprobetxamendua eta aurreko esperientzietako emaitzak kontuan izatea (entitatearenak nahiz kanpokoak)
- Parte hartuko duten edo/eta hartzaile izango diren enpresa eta/edo sektoreak
- Elkarlanaren eta prozesu parte-hartzaileen antolaketa: Entitate parte-hartzaileek hartutako konpromisoak, barruko nahiz kanpoko elkarlana, arloen artekoa eta garatuko diren prozesu parte-hartzaileak edo parte hartzeko ereduak, sektore publikoa eta pribatuaren parte hartzea, informazio eta kontsulta prozesua, lankidetzan aritzeko bitartekoak, parte hartzearen justifikazioa, beste proiektu batzuetako esperientzia...
- Genero ikuspegiaren txertaketa proiektuaren diseinu eta garapenean
- Euskara sustatzeko ekintzak: Zein arau eta prozedura euskarri ditu garatuta entitateak (planak, eta abar), zein esperientzia, entitatearen jardueran euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokienez? Proiektua garatzean, zein izango da euskararen erabilerari emango zaion tratamendua? Zein neurritan egingo dio ekarpena proiektuak euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokionez?
- Bi hizkuntza ofizialen tratamendua
- Aurreikusitako ebaluazio, jarraipen eta neurketa sistema eta emaitzen aplikagarritasuna
- Jardunaren bideragarritasun finantzarioa eta iraunkortasuna



## Barne pertsonala

### **BARNE PERTSONALA**

- Proiektuan parte hartzen duten entitatearen pertsonak erantsi aplikatibora

### **KANPO PERTSONALA**

- Proiektuan parte hartzen duten entitateko pertsonak erantsi aplikatibora



## Garatuko diren zereginak eta azpizereginak

### **NOLA eta NOIZ**

- Zereginen atalak eta azpiatalak azaldu:
  - Helburuak
  - Deskribapena
  - Parte hartzaileak
  - Entregagaiak
- Zereginen egutegia:
  - Noiz hasi eta noiz amaitu
  - Zenbat orduko lana

## Aurreikusten diren zailtasunak

### ZAILTASUNAK

- Diagnostikoa
- Diseinua
- Plangintza eta antolaketa
- Gauzapena
- Koordinazioa
- Bestelakoak